



[Cast/Eusk] La nada no es meta ni camino, es nada (I parte de IV)

PETRI REKABARREN :: 15/03/2015

La dirección de Sortu es un grupo burocrático que ha negado a sus bases el ejercicio del derecho de conocer el resultado del debate estratégico previo a su fundación

Castellano

Iniciamos una serie de cuatro breves comentarios sobre la situación de una parte del amplio movimiento de liberación nacional de clase vasco, o izquierda abertzale en su sentido esencial e histórico. Nos centraremos fundamentalmente en Sortu y más en concreto en su dirección para analizar, primero, desde qué momento crítico debemos sostener que es una dirección burocrática, y las consecuencias que ello acarrea; segundo, y unido a lo anterior, su retroceso político e ideológico hacia un reformismo clásico caracterizado por lo hueco de su proyecto; tercero, y desde aquí, la incapacidad de su actual dirección para entender y aplicar la dialéctica entre reforma y revolución; y cuarto, las perspectivas y necesidades a las que se enfrentan tanto las bases de Sortu como de la izquierda abertzale en su conjunto.

1.

Hace dos años Sortu hizo su presentación oficial en Iruñea. Hoy debemos decir que se han cumplido los peores augurios que, incluso con anterioridad, ya hicieron sectores de la izquierda abertzale histórica en el sentido de que de seguir a ese ritmo el «giro al realismo político» bien pronto Sortu se convertiría en la estructura burocratizada y verticalista que dirigiría en la práctica el reformismo de EH Bildu y Amaiur.

La dirección actual de Sortu es un grupo burocrático que ha negado a sus bases el ejercicio del derecho de conocer el resultado oficial del debate estratégico previo a su fundación. Existen muy contados casos en la historia política en general, y no sólo de «izquierdas», en los que se ha conculcado tan burda y descaradamente el derecho inalienable que tiene la militancia de base a conocer los resultados oficiales del debate fundacional, debate en la que participó con ilusión al inicio pero que se fue enfriando mucho luego, a modo de premonición pesimista.

Ninguna dirección tiene potestad ética y política para negar este derecho, para imponer el silencio y la oscuridad sobre la decisión colectiva democráticamente tomada. Una dirección que así actúa rompe toda relación democrático-socialista bidireccional y crítica con sus bases, e inicia una caída progresiva en la deslegitimación que sólo puede ser resuelta por su cese y recambio, o en el peor de los casos por la docilidad mental de las bases que aceptan semejante negación de sus derechos y libertades, de sus necesidades.

La militancia no sólo tiene el derecho de conocer lo que ella ha decidido, sino que sobre todo tiene la necesidad de hacerlo porque el futuro de su colectivo, organización o partido, sin mayores precisiones ahora, depende en todos los sentidos de ese conocimiento colectivo y exhaustivo. Si el suficiente dominio de la teoría marxista es una necesidad en sí misma

confirmada y reafirmada por la historia, tanto más lo es aún el conocimiento crítico y autocrítico de la teoría que esa militancia ha materializado lo más concretamente posible en su estrategia de liberación nacional de clase, estrategia discutida y aprobada en común y que fija para un período de tiempo los objetivos irrenunciables por los que se lucha, la estrategia adecuada para lograrlos, y las tácticas que deben aplicarse en la realización de esa estrategia.

Las denominadas *Bases Ideológicas* expresan sintética y ordenadamente la decisiva interacción entre los objetivos, la estrategia y las tácticas. Más que simple interacción, dialéctica. Los objetivos deben estar manifiestamente presentes en la estrategia, cohesionándola con la vista puesta en ellos aunque aparenten ser utópicos y ucrónicos; y también deben estructurar el interior de las tácticas con la flexibilidad necesaria en cada reivindicación, lucha y forma táctica aplicada en las siempre complejas y cambiantes formas de opresión, explotación y dominación. Una dialéctica entre los tres componentes que determina que si uno de ellos falla o yerra, más temprano que tarde herrará la entera política revolucionaria. Dependiendo del contexto y de las coyunturas, un partido u organización puede subsistir en medio de un desacoplamiento creciente entre esos tres niveles dialécticamente unidos, pero a nada que la coyuntura cambie surgirán los problemas que se harán insostenibles cuando sea el contexto el que varíe. Lo peor es que si bien semejante descoyuntamiento entre objetivos, estrategia y tácticas destroza a toda organización o partido, sus nefastos efectos son cualitativamente más graves cuando se trata de un movimiento de liberación nacional, como es nuestro caso.

Las *Bases Ideológicas* de Sortu están guardadas bajo siete llaves. La militancia no ha recibido ninguna explicación sobre tamaño burocratado que amputa además del derecho a conocerlas también, como decimos, la vital necesidad de que la militancia las someta a crítica y autocrítica colectiva dado que ella misma las ha redactado. Sin entrar ahora al método con el que se organizó, realizó el debate y se decidió su resultado oficial, método típico del marketing comercial burgués, lo fundamental es que al margen del grado de condicionamiento y manipulación previa y amaño posterior de sus resultados, ahora mismo y desde hace dos años las *Basas Ideológicas* siguen censuradas. Peor aún, todavía se desconoce cuándo va a realizarse la II Parte de la Conferencia Inaugural realizada en febrero de 2013. Se dijo que debía realizarse a los dos años, o sea, aproximadamente por estas fechas pero parece ser que se retrasa indefinidamente.

Mientras tanto, la dirección de Sortu impone arbitrariamente decisiones de muy largo alcance, que van directamente en contra de la identidad histórica del independentismo socialista y de sus valores consustanciales. Un ejemplo: ANV, primera organización de izquierda nacionalista creada en 1930 y que siempre ha formado parte del conjunto del movimiento de liberación, ha sido excluida de la defensa colectiva en el macro juicio 04/08 contra 35 militantes, a los que puede caerles una condena de diez años. Sin explicación alguna, pocos meses antes de iniciarse el juicio ANV fue lacónicamente avisada de que buscara otro equipo de abogados porque no iba a defenderles el de Sortu. La dirección de Sortu rompe así, sin explicación alguna, con la esencial solidaridad activa ante la represión que orgullosamente ha identificado a la izquierda independentista desde sus orígenes. La dirección de Sortu cae así en el sectarismo político más aberrante mientras que impulsa directrices reformistas a las que se opuso y opone ANV por coherencia política demostrada

en sus 85 años de heroica historia.

Comprendemos ahora mejor una de las posibles razones que intentarían explicar lo inexplicable: negar a la militancia el derecho y la necesidad el acceso a las *Bases Ideológicas*. Algunas opiniones sostienen que a pesar del método empleado los resultados últimos tal vez no coincidieran con la postura política y teórica preexistente de la actual dirección. Otras dicen que no se publican las *Bases Ideológicas* para no facilitar una posible ilegalización de Sortu, deseada por el fanatismo español. Por no extendernos, también se dijo alrededor de hace un año que se estaba a la espera de que concluyera el debate en Iparralde. Lo cierto es que desconociéndose las *Bases Ideológicas* la dirección de Sortu ha impuesto otras dinámicas de largo alcance como todas las relacionadas con EH Bildu y Amaiur tomadas abiertamente al margen de la militancia de Sortu que es informada después con lo fundamental ya decidido: política de hechos consumados.

Al ignorar el contenido de las *Bases Ideológicas* la militancia de Sortu carece de punto de contraste entre lo que impone la actual dirección y lo que realmente debiera hacerse según los objetivos, la estrategia y las tácticas diseñadas y oficializadas en las Bases Ideológicas. La dirección tiene así las manos prácticamente libres para hacer y deshacer lo que quiera, mientras que a las bases sólo les resta la fe y el derecho de pataleo en las escasas cuestiones superficiales que de vez en cuando les son planteadas. La militancia, además de las reuniones y asambleas en las que exponer su opinión, solamente dispone para su formación política, teórica e ideológica de muy limitados medios: el portal virtual de Sortu, el diario *Gara* y la Fundación Iratzar, apenas más.

Dejando para otros capítulos de esta serie la aguda limitación teórica y la orientación ideológica y política de estos medios, el problema en el que ahora debemos fijarnos no es otro que el de la imposibilidad de debate radicalmente democrático en el interior de Sortu por cuatro razones: no hay punto de contrastación al desconocerse las *Bases Ideológicas*; no hay posibilidad de seguimiento de lo poco debatido al funcionar EH Bildu y Amaiur por su cuenta, sin comités de barrio y pueblo que se reúnan regularmente para hacer seguimiento; no hay plan alguno de formación simultánea y sistemática que enriquezca conceptualmente los debates; y, como remate, la militancia de Sortu no puede debatir sobre la nada partiendo de la nada, como es el caso de la llamada «Vía Vasca».

Probablemente la «Vía Vasca» sea uno de los documentos que más fácilmente se han escrito porque casi no hace falta esfuerzo intelectual para redactarlo. Pero esta facilidad se muta en su opuesto cuando sus autores intenten demostrar su factibilidad. Un principio elemental de la epistemología materialista indica que la carga argumentativa descansa sobre quien afirma algo, no sobre quien lo niega. Por ejemplo, si decimos que *ornithocheirus* fosforescentes han cruzado a la velocidad de la luz las supercuerdas que conectan los multiversos traspasado el umbral de nuestro universo, encontrándose ahora en la sede de la ONU leyendo un ultimátum a la humanidad, si decimos esto debemos ser nosotros quienes aportemos pruebas a menos con argumentos de alta probabilidad. Si no lo hacemos, entonces quienes niegan esa eventualidad destrozarán nuestro idealismo.

Salvando las distancias entre la «Vía Vasca» y los *ornithocheirus* fosforescentes, estamos a la espera de siquiera alguna pista racional que sugiera una remota factibilidad de la «Vía

Vasca». Mientras que la militancia de Sortu no reciba esa pista flotará en vacío de la creencia.

Euskera

Hasiera ematen diogu lau iruzkin labur sailari, euskal nazio eta klase askapenerako mugimendu zabalaren zati baten egoeraren inguruak (edo ezker abertzalea funtsezko zentzu historikoan). Gehienbat, Sortun jarriko dugu arreta eta, zehazkiago, zuzendaritzan. Aztertuko dugu, lehenik, zein larriune hartu behar dugun abiapuntutzat zuzendaritza burokratikoa dela baieztatzeko, eta nolako ondorioak dakartzan berekin; bigarrenik, eta aurrekoarekin loturik, erreformismo klasikoren alderantz izan duen atzerakada politiko zein ideologikoa, egitasmo hutsalaren ezaugarria dena; hirugarrenik, eta bertotik, oraingo zuzendaritza, erreformaren eta iraultzaren arteko dialektika ulertu eta aplikatzeko gauza ez dela, eta laugarrenik, Sorturen nahiz ezker abertzale osoaren oinarriek aurre egin beharreko perspektibak eta premiak.

1.

Duela bi urte Sortuk aurkezpen ofiziala egin zuen Iruñean. Gaur egun zantzurik txarrenak bete egin direla esan behar dugu, lehenago, ezker abertzale historikoaren sektore batzuek iragarri zuten bezala, izan ere, «errealismo politikoranzko birak» erritmo horri eutsiz gero, Sortu laster egitura burokrata eta bertikal bihurtuko litzatekeela eta, praktikan, EH Bildu eta Amaiurren erreformismoa gidatuko lukeela esaten zutelako.

Sorturen oraingo zuzendaritza-taldea burokratikoa da, sorreraren aurreko eztabaida estrategikoaren emaitza ofiziala jakiteko eskubidea ukatu egin diena oinarriari. Historia politikoa, oro har, eta ez soilik «ezkerretako» alderdietan, kasu oso bakanetan urratu zaio oinarritzko militantziari sorrera-eztabaidaren emaitza ofizialak jakiteko eskubide besterenezina hain modu baldar eta lotsagabean, bada, eztabaidaren hasierako ilusioa hoztuz joan zen nabarmenki, susmo ezkor gisa.

Zuzendaritzek ez dute eskubide hori ukatzeko ahalmen etiko eta politikorik, ez eta, modu demokratikoan hartutako erabaki kolektiboaren gaineko isiltasuna eta iluntasuna inposatzeko ahalmenik ere. Hala jokatzeko duten zuzendaritzek hautsi egiten dute oinarriekiko bi noranzkoko harreman demokratiko-sozialista eta kritikoa osoa, pixkanaka deslegitimazioan eroriz, kargu-uztea eta talde ordezkoa jartzea irtenbidea delarik, edo, okerreanean, oinarrien otzantasun mentala, eskubide, askatasun eta premien ukapena onartzen baitute.

Militantziak berak erabakitakoa jakiteko eskubidea eta, batez ere, beharra dute, haren kolektibo, erakunde edo alderdiaren etorkizuna (oraingoz zehaztasun handiagorik gabe) ezagutza kolektibo eta sakon horren mende dagoelako zentzu guztietan. Historiak baieztatu eta berretsitakoaren arabera, beharrezkoa da, berez, teoria marxista behar bezala menderatzea, are eta beharrezkoagoa da ere teoriaren ezagutza kritikoa eta autokritikoa, militanteek, nazio eta klase askapenerako estrategian ahalik eta zehatzen gauzatu eta guztien artean eztabaidatu zein onetsi egin dutena, bertan epealdi baterako finkaturik daude: borrokatzekoak diren utziezinezko helburuak, haiek lortzeko estrategia egokia eta estrategia bera gauzatzeko ezarri beharreko taktikak.

Oinarri Ideologikoak deiturikoen helburuen, estrategiaren eta taktiken arteko elkarrekintza erabakigarria adierazten dute modu sintetiko eta ordenatuan. Elkarrekintza soila baino gehiago, dialektika.

Helburuak nabarmenki agertu behar dira estrategian, oinarriari kohesioa eman behar diete, betiere helburuak beraiek kontuan edukita, nahiz eta utopikoak eta ukronikoak iruditu; halaber, taktiken barnea egituratu behar dute, aldarrikapen, borroka eta forma taktiko bakoitzean beharrezko den malgutasunaz, hain zuzen, beti konplexuak eta aldakorak diren opresio-, esplotazio- eta menperatze-motetan aplikatzen direnak.

Hiru osagaien arteko dialektika, bada, haietako batek huts egitekotan, berandu baino lehen, politika iraultzaile osoa eragozten duela zehazteko. Testuinguruaren eta koiunturen arabera, alderdi edo erakunde batek bizirauteko aukera dauka dialektikoki elkartuta dauden hiru maila horien arteko desakoplamentu gorakorren erdian, alabaina, koiuntura aldatuz gero, arazoak azaleratuko dira, eta testuingurua aldatuz gero, jasanezinak izango dira. Helburuen, estrategiaren eta taktiken arteko halako desartikulazioak erakunde edo alderdi oro suntsitu egiten du, baina okerrena da, haren zorigaitzoko eraginak kualitatiboki larriagoak direla nazio askapenerako mugimendua denean, gure kasuan bezala.

Sorturen *Oinarri Ideologikoak* zazpi giltzapetan gordeta daude. Militanteei ez zaie halako burokraziakeriari buruzko inongo azalpenik eman, jakiteko eskubideaz gain, diogun bezala, militantziaren kritika eta autokritika kolektiboaren esku jartzeko premia bizia ere moztu egin da, militantzia bera izanik haien egilea. Antolaketa-metodoan orain sartu gabe, eztabaidaren ondoren, emaitza ofiziala erabaki egin zen, marketin komertzial burgesaren metodo tipikoa, funtsezko da esatea, emaitzen baldintzatze-maila, aurreko manipulazioa eta geroko iruzurra alde batera utzita, orain bertan eta bi urtez geroztik Oinarri Ideologikoak zentsurapean daudela oraindik ere. Are okerrago ere, oraindik ez dakigu noiz egingo den Inaugurazio Konferentziaren II. zatia (2013ko otsailekoa). Handik bi urtera egingo zela aipatu zen, hau da, gutxi gorabehera garai honetan, baina, antza denez, atzeratu egin da eperik gabe.

Bitartean, Sorturen zuzendaritzak oso garrantzi handiko erabakiak inposatzen ditu modu arbitrarioan, independentismo sozialistaren identitate historikoaren kontra jotzen duenak zuzenean, bai eta, haren berezko baloreen kontra ere. Adibide bat: ANV, ezker nazionalistaren lehen erakundeak (1930ean sortua) beti hartu du parte askapenerako mugimenduan, hala ere, defentsa kolektibotik kanpo utzi dute 35 militanteen aurkako 04/08 makro-epaiketan, hamar urteko kondena jasotzeko zorian daudenak. Inolako azalpenik gabe, epaiketa hasi baino hilabete gutxi batzuk lehenago, ANV-ri, beste abokatu-talde bat bilatzeko ohartarazi zioten era lakonikoan. Sorturenak uko egin baitzion eurak defendatzeari. Hartara, Sorturen zuzendaritzak hautsi egin zuen, inolako azalpenik gabe, errepresioaren aurrean ordura arte erakutsitako funtsezko elkartasun aktiboa, hasiera-hasieratik, ezker independentistak harrotasunezko nortasun-zeinua dena. Modu horretara, Sorturen zuzendaritza sektarismo politikorik aberranteenean erori egin da, ildo erreformistak bultzatuz, ANV, aldiz, koherentzia politikoa dela medio, halakoen kontra egon da beti, haren 85 urteko historia heroikoan zehar erakutsi duen legez.

Orain hobeto ulertzen dugu jokabide esplikaezina azaltzeko arrazoi posibleetako bat, alegia, *Oinarri Ideologikoak* eskura izateko eskubidea eta beharra ukatzea militantziari. Batzuen ustez, erabilitako metodoaz gain, baliteke azken emaitzak bat ez etortzea oraingo

zuzendaritzaren alde aurreko jarrera politiko eta teorikoekin.

Beste batzuek dioten arabera, *Oinarri Ideologikoak* ez argitaratzeko zergatia Sorturen balizko legez kanporatzean datza, espainiar fanatismoak desiratzen duena. Luzeago ez jotzearen, duela urtebete inguru, Iparraldeko eztabaida amaitzeko zain zeudela esan zuten ere. Egia esan, *Oinarri Ideologikoak* zertan dautzan jakin gabe, Sorturen zuzendaritzak garrantzi handiko beste dinamika batzuk inposatu egin ditu, kasurako, EH Bildu eta Amaiurrekin erlazionatutako guztiak, Sorturen militantzia nabarmen alde batera utzita hartu direnak, izan ere, behin funtsezkoa erabakitakoan, informazioa ematen zaie militanteei, hau da, atzerabiderik gabeko politika.

Oinarri Ideologikoen edukia ez dakienez, Sorturen militantziak ez du, oraingo zuzendaritzak inposatzen duenaren eta benetan egin beharko litzatekeen arteko kontraste-gunerik, betiere *Oinarri Ideologikoetan* diseinatu eta ofizialdutako helburuei, estrategiari eta taktikei erreparatuz. Horretara, zuzendaritzak, praktikan, eskuak libre ditu nahi duena egiteko eta desegiteko, oinarriari, aldiz,, fedea eta kexatzeko eskubidea gelditzen zaizkie besterik ez, noizean behin planteatzen zaizkien azaleko kontu urriari dagokienez. Euren iritzia agertzeko egiten diren batzarrez eta asanbladez gain, militantziak baliabide mugatuegiak dauzka trebakuntza politiko, teoriko eta ideologikorako: Sorturen atari birtuala, *Gara* egunkaria eta Iratzar Fundazioa, apenas gehiago.

Sail honetako hurrengo kapituluetan baliabide horien mugapen sakonaz eta orientazio politiko zein ideologikoaz arituko gara, oraingoan, Sortu barneko eztabaida zeharo demokratikoa izateko ezintasunean jarriko dugu arreta nagusia, lau arrazoi direla kausa: *Oinarri Ideologikoen* nondik norakoak ez dakitenez, ez dago kontraste-gunerik; EH Bildu eta Amaiur beraien kabuz dabilzanez eta auzo zein herrietako batzordeak erregulartasunez biltzen ez direnez, ez da eztabaiden (oso gutxi) segimendurik egiten; ez dago aldibereko trebakuntza sistematikoaren gaineko inolako planik, eztabaidak kontzeptualki aberasteko; eta, erremate gisa, Sorturen militantziak ezin dezake ezerezaren gainean eztabaidatu ezereza bera abiapuntutzat harturik, «Euskal Bidea» deiturikoan gertatzen den bezala.

Seguruenik, «Euskal Bidea» erredaktatutako dokumenturik errazenetako bat izango da, idazteko ia esfortzu intelektualaren beharrik izan ez duelako. Alabaina, egileek egingarri dela frogatzen saiatzen direnerako, horrelako erraztasuna beraren aurkako bilakatzen da. Epistemologia materialistaren oinarritzko printzipio batean adierazitakoaren arabera. argumentuzko karga zerbait baieztatzen duenarengan oinarritzen da, ez, ordea, ukatzen duenarenarengan. Adibidez, baldin eta esaten badugu, *ornithocheirus* fosforeszenteek, argiaren abiaduraz. multibertsoak konektatzen dituzten supersokak gurutzatu dituztela, gure unibertsoko atalasea zeharkatu eta orain NBEko egoitzan daudela gizateriari ultimatuma irakurriz, baldin eta halakorik esaten badugu, geuk frogak erakutsi beharra daukagu, edo, gutxienez, probabilitate handiko argudioak Halakorik egin ezean, gertakizun hori ukatzen dutenek gure idealismoa suntsitu egingo dute.

«Euskal Bidearen» eta *ornithocheirus* fosforeszenteen arteko aldeak alde batera utzita, «Euskal Bidea» egingarri denaren arrasto nazionalaren baten zain gaude. Sorturen militantziak arrastoa jasotzen ez duen bitartean, sinesgarritasuna hutsaren hurrengo izango da.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/cast-eusk-la-nada-no